



## LASARTE-ORIAKO UDALAREN ETA OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO AKORDIO MARKOA

Lasarte Orian, 2015eko urriaren 15ean

### BILDURIK

ALDE BATETIK, **Jesús Zaballos de Llanos** jauna, DNia 44.146.883Q zenbakikoa duena, Lasarte-Oriako Udalaren ordezkari gisa, hango alkate-udalburua den aldetik.

BESTETIK, **Imanol Bardají Zuriarrain** jauna, DNia 15963169L zenbakikoa duena, OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAREN ordezkari gisa, hango lehendakaria den aldetik.

Jakinarazten dute ordezkatzan dituzten instituzioak behar bezala baimenduta daudela honako AKORDIO MARKO hau hitzartzeko, ondoko estipulazio hauetan oinarrituta:

### ADIERAZI DUTE

1. Garapen lokala faboratzeak berekin eskatzen duela gizarte hau osatzen dugun estamentu, enpresa eta pertsona guztion ahalegina eta ekarpena. Krisi-garaian egiteak, gainera, berekin dakar modu berezi batean inplikatzeari ekonomia eta egonkortasun laboralaren bilakaera zalantzazkoan zuzenean murgildurik aurkitzen direnekin. Gure kasuan, Lasarte-Oriako bizitza sozial eta ekonomikoan, merkataritzak, ostalaritzak eta zerbitzu pertsonalen enpresek osatzen duten hirugarren sektoreak presentzia nabarmena dauka eta, ondorioz, denon arteko sostengu irmoa behar duen sektore bat da, kokatua dagoen herriko sare sozial osoan zenbateko garrantzia duen ikusita.

2. Lasarte-Orian hirugarren sektorearen iraunkortasuna ahalbidetzeko eta haren biziberritzea eragiteko, egokia gertatzen ari dela udal-esparrutik sustatzen ari den marka komertziala, gure merkataritzaren eta ostalaritzaren identitate berezia definitzen duena, hurbiltasunaren eta konfiantzaren balioak oinarritzat hartuta. Hauxe da marka hori: ***Lasarte-Oria, Tratu on bat, Un buen trato.***

3. Beraz, bere sustapenean eta zabalkundean, hirugarren sektorea osatzen dutenen konpromisoa ez ezik, ingurune lokaleko beste enpresa eta entitate batzuen



ere espero eta behar duen marka bat dela, herritar guztiak haren ezagutzari buruz sentsibilizatzea iritsiko bada.

4. Ekonomia Sozialarekin identifikatutako entitatea izanik, bereziki interesgarria dela OSTADARREKIN akordioa sinatzea, ezen-eta helburu sozialak baititu, kirolean bezala handik kanpo ere, haren jarduerak eta ebentuek herri-mailako ekonomia sustatzen baitute, Lasarte-Orian ase gabeko premiei erantzuten baitie, lana sortzen baitu, udalerriko giroa hobetzen baitu eta, gainera, irabazi-asmorik gabeko entitate bat baita. Udaletik sustatu nahi diren kontzeptuak guztiak ere.

Horrela, bada, alderdiek beharrezkotzat jotzen dute elkarrekin jardutea, ondoko klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

1.- Lasarte-Oriako Udalak, markaren promozioa egiteko, **OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEARI** nylonezko 2.000 motxila emango dizkio, *Lasarte-Oria, Tratu on bat, Un buen trato* eslogana eta logoa dituztenak, urriaren 25ean igandearekin egingo den *XX. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoian* parte hartuko duten pertsona guztien artean banatuak izan daitezzen. Ostadarreko kideek banatuko dituzte, parte-hartzaileak beren dortsal indibidualak jasotzera doazenean.

2.- Lasarte-Oriako Udala arduratuko da dortsaletan jarri beharreko publizitateaz, 1.300 dortsal daudelarik aurreikusita helduen kroserako eta 800 dortsal haurren kroserako. Horretarako, **OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEARI** 2.000 euroko diru-laguntza emango dio zuzenean. Publizitate hori *Lasarte-Oria, Tratu on bat, Un buen trato* esloganak eta logoak osatuko dute.

3.- **OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEA**, berriz, *XIX. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoian* buruzko 500 karteletan eta 4.000 esku-orrietan *Lasarte-Oria, Tratu on bat, Un buen trato* eslogana eta logoa sartzera konprometitzen da, hartara markari ematen dion sostengu esplizitua agerian utziz.

4.- Bi entitate inplikatuak, azkenik, akordio-ildo berriak ezartzera konprometitzen dira, 2016. urtean zehar elkarlanaren bitartez marka sustatzeko.

Jesús Zaballos de Llanos  
Lasarte-Oriako Udala

Imanol Bardají Zuriarrain  
OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEA